

Mikel Zurloano

EKONOMIALARIA

Neurrigabea

K

risiari aurre egiteko mundu mailako lankidetzaren ahulezia kitatzeko, herrialdeetako erantzunak bi ardatz nagusi hartzen ari dira arrakasta handirik gabe: bata erreskate planak eta beste politika antiziklikoak. Lehenari dagokionean estatuen interbentziorik ezean finantza sistemaren hondamendiaren aurrean geundeke, milaka milioi dolar bideratu dira plan horien bidez, urtetan mozkinen metaketa handitu dituzten finantza erakundeak diru publikoz hornitzeko.

Zalantza moralaren garaiotan jokabide etikorik eza izan da estatuen jokabidearen oinarri. Esaterako AEBetako erreskate planean erabilitako dirutzak jatorriz arazoa sortutako hipoteken moneta balioa aise gainditu du, beraz merkeagoa eta bidezkoagoa zatekeen baliabide publikoak hipotekak kitatzeko erabili izana. Bigarrenari dagokionean, Krugman Nobel saridunak erakusten du errenta ertainei kenkari fiskalak gehitzeak beren gastu maila handitzeko ez duela ondorio efektiborik krisi garaietan.

Hobe lukete estatu indartsuenek beren ahaleginak paradisu fiskalen aurka bideratuko balituzte, beren herritar aberatsenen iruzur fiskal hedatuenari ateak itxiz eta errenta birbanaketa gauzatuz. Bestalde, aurrekontu politiketako erdian azpie-



DANI BLANCO

gitura erraldoiak eta eraikuntza etxeak sustatzea lehenesten da, Estatuan eta Hego Euskal Herrian kasu. Eredu ekonomiko zaharrraren mugak kontuan hartzeke garapen iraunkorrari ateak itxiz. Neurri bidegabeen gurpilari eransten zaio enpresa produktiboki krisia aprobeztatzeko egiten ari diren erabilerak perbersoa: Enplegu Erregulazio Espedienteak, kaleraketak, konbenio zorrotzak. Hauxe da, hain zuzen, azken hamarkadetakoa ibilbidean indarrean ipinitako neurriak are gehiago zorroztea eta soldatapekoek erosahalmena galtzeko baldintzetan sakontzea, beti ere etekin tasa handitze-ko. Lehengo lepotik burua: enpresa bakoitzarentzat laburreko soluzioa izan litekeena ekonomia osora zabalduz gero neurri itogarria bihurtzen da soldatapekoen errenta maila jaisteak.

Horixe da gaur egungo krisiaren zio nagusia. Eta hau ez da kitatzen presio fiskala apalduz, lan merkatuan bidezkoagoa den berrarauketa gauzatuz eta gastu soziala biderkatuz. Gizartea eta ingurugiroa politika ekonomikoaren erdigunean ezartzea da krisiaren irtenbidearen gakoa. Historiak dio kapitalismoak nekez hartuko duela bide hau. Are gutxiago mugimendu altermugabista eta ezkerreko indarrak eta alternatibak ahuleziak jota dauden garaian. ■

«
Gizartea eta ingurugiroa politika
ekonomikoaren erdigunean ezartzea
da krisiaren irtenbidearen gakoa.

Historiak dio kapitalismoak
nekez hartuko duela bide hau
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Entzun dut gaur goizean, zaharrraren azkena den honetan, han eta hemen. Uzten dugun hau, nire aurrejubilazioaren lehena, berezia izan da. Berrogeitik gora ogibidean emanak, azken honek berrikuntza zenbait ekarri dit. Egutero asteburu. Berandu oheratu, nahi dudanean jaiki. Eta goizero, garai batean asteburutan bezalaxe, eguna niretzat ordulariari kasurik egin gabe. Agenda txikia aski, ezagun berriak egiteko aukera, eguneroko paseoan gurutzatzen ditudanak. Ez dut haien berri, ez dakit nongoak diren, zertan dabilen, zertan pasa duten aurrekoa. Hala ere, urte berri on esan diogu elkarri gaurkoan betiko lagunak

Urte berri on

baikinen. Agendatik zenbait izen desagertzen ari zaizkit. Lagunminak tarteko, berrientzat lekurik ez dut behar, ez dugu astirik, aurki orritxo batean sartuko zaizkit gelditzen zaizkidan denak. Bizi beharrak hartzen zigunez denbora gehiena, orain orduan egin ezin izanak egiteko entrenamendua falta zaigu. Hau alukeria. Irakurtzen hasi eta ordu betean begiak lausotu. Kantuak ontzeari eman, eta partitura irakurtzen traboka ibili zabuka, buruan itxuratzeko nekez gabiltzala. Beharrik CDek soinu bikaina dutela eta ordenagailuen teknologietara garaiz iritsi garel. Ez gara geldituko lagunaren agendatan gauzkatzen bitartean. ■